**ERDIGUNEA**

**AUZOZ AUZO, PAUSOZ PAUSO**

| |
|---|
| **DATA:** Martxoak 28<br>**ORDUA:** 19:00-20:30<br>**PERTSONA KOPURUA:** 23 (13 emakumezko / 10 gizonezko). |

Bilera hasteko, auzoz auzoko lehengo bileren balorazio txiki bat egin da, etorri direnei bertan egindakoa gogorarazteko eta hurbildu den jende berria kokatzeko.

Lehenengo bilerak bukatutakoan, parte-hartzeko departamentuak egiten duen balorazioa oso positiboa da. Kontuan izanik planteatu den dinamika berria dela, auzotarren erantzuna egokia eta parte-hartzailea izan dela uste da.

Asistentzia aldetik, 15-50 pertsona agertu dira bileretara. Kopuruak auzoaren arabera ezberdinak izan dira; guztira, 184 pertsonak parte hartu dute.

Guztira, 278 gabezia, kezka eta proposamen jaso dira. Auzoetan, gabezia komun batzuk atera dira; esate baterako: txakur-kaken arazoa, garbiketa, komertzio txikiaren sustapena…

Zehazki, auzoko datuak honako hauek dira:

- 47 pertsona hurbildu ziren bilerara.
- 28 emakumezko eta 19 gizonezko.
- 52 proposamen jaso ziren.

**BILERAREN HELBURUAK:**

Lehenengo bilera gabeziak, kezkak eta proposamenak jasotzeko izan bazen, bigarren bilera hau ideia horiei lehentasuna emateko izan da. Udalak horren arabera lanean hasteko asmoa du. Bigarren bileretara joatearen garrantzia da bertan lehentasunak ezarriko direla.

Lehenengo bilerako gabeziak, kezkak eta proposamenak 3 multzotan sailkatu dira:

**Berdea**: Udalak konpetentzia osoa du, eta horiei epe motzean (urtea amaitu arte) erantzun bat ematera konprometitzen da. Erantzuna ez da zertan exekuzioan bakarrik ulertu behar. Batzuk aurrekontu eta lanketa gutxiko gaiak dira, berehala egitekoak. Beste batzuk, ez hain berehalakoak. Horien artean, auzolanean egitekoak aurkituko ditugu.

**Laranja:** Udalak konpetentzia osoa du. Baina, proiektuaren tamainagatik, ezin du berehala erantzun. Laranjaz sailkatutako gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Aurrekontu bat eskatzen du, eta lanketa sakona. Lanketak herritarrekin HPHLak sortuz egin daitezke, eta prozesuaren 3. fasean aurkeztuko lirateke. Bertan, udalak diru-partida finko bat erreserbatu beharko luke, eta auzotarrek erabaki beharko lukete zein proiektu egingo diren. Horrela, datorren urteko aurrekontuan sartuko lirateke eta datorren urtean gauzatuko.

**Gorria**: Udalak ez du konpetentzia osoa, ezin du erabakia gauzatu. Beste instituzio edo elkarte batzuei dagokie gaia, guztiz edo partzialki. Hala ere, gorriz sailkatuta dauden gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Horrela, udala dagokionari zuzenduko zaio, eskaera ofizial bat eginez proiektua bultzatzeko.

## ERDIGUNEA

**BILERAREN DINAMIKA:**

Dinamikarekin hasi aurretik, auzotarrei aipatu zaie, aurreko bileran ateratako kezka, gabezia edo proposamenen bat falta bada, esateko eta apuntatu egingo dela.

Gabezien multzokatzea (berdea, laranja eta gorria) paretan jarri da, ondoren puntuazioa bertan idazteko.

Bileraren dinamika lehenengo bileraren dinamikaren antzekoa izan da. Auzotar bakoitzak minutu pare bat izan ditu, bakarka, kezkei, gabeziei eta proposamenei lehentasunak ezartzeko. Auzotar bakoitzak multzokatze bakoitzari (berdea, laranja eta gorria) garrantziaren arabera 1, 2 edo 3 puntu (3 puntuaketa altuena eta 1 baxuena) emateko aukera izan du.

Bakarrik dauden bitartean, forma ezberdinetako gozokiak banatu dira. Talde txikiak egiteko erabili da hori.

Talde txikietan (4-5 pertsona), bakoitzak jarri dituen lehentasunak komentatzeko aukera izan dute. Taldean bozeramaile bat izendatu da, eta pertsona hori izan da taldeak gabezia bakoitzari emandako puntuazioa ozenki adierazi duena.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde ibili dira, laguntza eskaintzeko, behar izanez gero.

Talde handian jartzean, talde bakoitzeko bozeramailea gabezia bakoitzari jarritako puntuazioa esaten joan da. Talde guztiek denak aipatu arte. Ondoren, puntuazio handiena atera dutenetik txikiena atera dutenera ordenatu ditugu, lehentasuna argi ikusteko.

Bukatzeko, auzotarrek gabezia bakoitzaren inguruan proposamenen bat baldin badute, jaso egin da.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarri da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

**Itxiera:**

- Gai zehatzen inguruan bilerak egiten direnean deialdi zuzena egingo zaiela.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

**ERDIGUNEA**

# Udalak konpetentzia osoa du eta epe motzean erantzuna.
## Es competencia del ayuntamiento y responderá en breve.

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| **19** | • Txakurra lotuta eramatea eta kaken asuntoa begiratzea.<br>• Llevar los perros atados y mirar el problema de los excrementos de perros. | • Kontzientziazioa (batez ere jabeen aldetik)<br>• Concienciación (sobre todo por parte de los dueños)<br>• Bandoak jarri abisatzeko  kakak jaso egin behar direla, jasotzen ez dituenari isuna.<br>• Poner bandos para avisar de que hay que recoger los excrementos, si no se recogen empezar a poner multas. |
| **16** | • Birziklatzeko ontziak espaloitik urrun uzten dira eta gurpil aulkiarekin iristea ezinezkoa da<br>• El contenedor del reciclaje lo dejan muy separado de la acera, esto dificulta la accesibilidad desde la silla de ruedas. | |
| **15** | • Herriko azokari leku egokiagoa eman. (herriko plaza edo inguruetan)<br>• Dar un sitio adecuado al mercado de los miércoles. (en la plaza del pueblo o alrededores). | • Honek herriko komertzioari lagunduko dio<br>• Esto ayudará a fomentar el pequeño comercio.<br>• Leku estali batean jarri, udaletxe atzeko lekuaren berrantolaketarekin lotu.<br>• Ponerlo en un sitio tapado, relacionarlo con la reorganización del espacio del parque del ayuntamiento. |
| **8** | • Udal eta auzotarren arteko eguneroko komunikazioa, herritarrek iradokizunak egiteko bideak erraztu edo sinplifikatu.<br>• La relación entre ayuntamiento y ciudadanos sea más diariamente. Facilitar o simplificar las vías para hacer sugerencias. | • Ekologikoa izatea, errekurtsu gutxiago duen jendeari zuzendua izatea.<br>• Ecológica, destinada a la gente con menos recursos. |
| **8** | • Baratz publikoak (herrian lur publikoak baldin badaude, etxeak bezala zozketatzea.) | |

**ERDIGUNEA**

| | | |
|---|---|---|
| | • Poner huertas públicas. (si hay tierras publicas en el municipio, sortearlos como las casas.) | |
| 7 | • Iturriak jarri.<br>• Poner fuentes. | |
| 7 | • Espaloietan motor asko ibiltzen dira.<br>• Las motos suelen andar por las aceras. | |
| 7 | • Kultur etxeko gelen erabilera arintzea.<br>• Agilizar los trámites para pedir las salas de reunión de la casa de cultura. | |
| 5 | • Okendoko parking-a noizko?nola izango da?<br>• ¿Para cuándo el parking de Okendo?¿Cómo va a ser? | |
| 5 | • Igandeetan jubilatuetan egiten den dantzaldia plazara ateratzea.<br>• Llevar a la Okendo la sesión de bailes que se hace los domingos en los jubilados. | |
| 5 | • Sorkuntza ahalbideratzeko espazioak sortu (herritarrari begira beti). Herritarra arduradun<br>• Crear espacios para la creación (siempre mirando al ciudadano. Bajo su responsabilidad. | |
| 3 | • Okendo plazan dauden etxeentzat kotxearekin barrura sartzeko aukera.<br>• Dar la oportunidad a los vecinos que viven en Okendo de entrar con los coches. | • Ordu pare bat egunean zehar 9:00-tatik 12:00-tara adibidez.<br>• Un par de horas al día de 9:00 a 12:00 por ejemplo. |
| 3 | • Eskaintza profesional gehiago.<br>• Más oferta profesional. | |
| 3 | • Kultur amateurra bultzatu.<br>• Fomentar la cultura amateur. | |
| 2 | • Okendoko zuloak tapatzeko txapak, bankuen ertzak… arriskutsuak dira, atzeko parkeko zorua puskatuta dago.<br>• Las chapas que hay en Okendo, las esquinas de los bancos… son | |

**ERDIGUNEA**

| | | |
|---|---|---|
| | peligrosas | |
| 2 | • Kiroldegiko ordutegia zabaltzea.(igerilekua eguerdietan irekitzea)<br>• Ampliar el horario del polideportivo. (abrir la piscina al mediodías) | |
| 2 | • Euskara sustatu kirolean<br>• Fomentar el euskara en el deporte. | |
| 2 | • Liburutegiaren ordutegia luzatu (gauean ireki adibidez)<br>• Alargar el horario de la biblioteca (abrir por las noches). | |
| 2 | • Auzo elkarteentzat lokala.<br>• Local para las asociaciones de vecinos. | |
| 1 | • Umeek udaletxe atzean dagoen parkeko harri zuriak ahora sartzen dituzte (toxikoak dira?)<br>• Los niños se meten a la boca las piedras que hay detrás del parque del ayuntamiento nuevo. (¿son tóxicos?) | • |
| 1 | • Pintore kalean eta Okendon zuhaitzen adarrak moztu.<br>• En calle Pintore y Okendo cortar más las ramas de los árboles. | • |
| 1 | • Kultur Etxeko kultur agendak azkar bukatzen dira (kopurua begiratu).<br>• Los folletos de la Casa Cultura se acaban muy rápido (mirar la cantidad). | • Esaldi esanguratsuak jarri agendak irauteko.<br>• Poner frases significativas en las agendas para que duren más |
| 1 | • Kiroldegiko garbitasuna zaindu (ongizatetik begiratu, onddoekin arazoak).<br>• El polideportivo esta sucio. (problemas con los hongos). | |
| | • Eskoletako instalakuntzak arratsaldez herritarrentzat ireki daitezke? Horrela bada ireki.<br>• ¿Se pueden utilizar las instalaciones de los colegios a las tardes? Si es así que se abran. | |
| | • Herriko produktuak saldu edo erakusteko aukera ematea<br>• Dar la oportunidad para vender productos del municipio o hacer exposiciones (fomentar más). | |

**ERDIGUNEA**

| | | |
|---|---|---|
| | • Herria zikina dago egunero orokorrean<br>• El pueblo esta sucio todos los días en general. | |

## ERDIGUNEA

**Udalak konpetentzia osoa du baina proiektuaren tamainagatik ezin du berehala erantzun.**
**Es competencia del ayuntamiento pero por el tamaño del proyecto no puede responder enseguida.**

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| 21 | • Atez- atekoa ez bada jartzen, horren ordez beste zerbait planteatzea gehiago birziklatu ahal izateko ( 5. kontenedorea, konposta egiteko ontzia…)<br>• Si no se pone el puerta a puerta, plantear otra cosa para poder reciclar más (compostaje, compostaje, 5º contenedor…) | • Foro zehatz bat, aurreiritziak alde batera utzita, eraginkorrena aukeratzea.<br>• Foros específicos, que se trate sin prejuicios, que se elija lo mas eficiente. |
| 14 | • Komun publikoak erdigunean (Okendo inguruan)<br>• Baños públicos en el centro (por Okendo). | |
| 13 | • Udal atzeko esplanadan aterpeak, gune berdeak…<br>• El parque que hay detrás del ayuntamiento poner una zona cubierta, una zona verde… | • Gimnasia egiteko aparatuak jarri<br>• Poner aparatos para hacer gimnasia<br>• Espazioaren berrantolaketa eta materialaren erabilpena.<br>• Reorganización del espacio y la utilización del material. |
| 13 | • Lasarte- Oriako erdigunean kotxeak 30km/h abiaduran ibiltzea. (bizikletarekin lasai ibiltzeko adibidez)<br>• Reducir a 30km/h la velocidad de los coches por el centro. (para andar tranquilo con la bici por ejemplo.) | |
| 11 | • Kiroldegia zaharkitua eta txikia geratu da.<br>• El polideportivo se ha quedado pequeño y antiguo. | |
| 9 | • Igandeetan garbiketa, asko nabaritzen da ez dutela garbitzen (larunbat gaueko zikinkeria).<br>• Se nota mucho que los barrenderos no limpian los domingos.(la suciedad del sábado noche) | • Tabernetako zikinkeria bakoitzak bere zatia garbitzea.<br>• Cada bar recoja la suciedad de la calle que le corresponda.<br>• Kontzientziazioa.<br>• Concienciación<br>• Munizipalek pixka bat kontrolatzea |

## ERDIGUNEA

| | | |
|---|---|---|
| | | • Un poco de control por parte del os municipales. |
| 8 | • Txartelaren erabilera desegokia kontrolatu.(bigilantzia)<br>• Controlar la mala utilización de las tarjetas de minusválidos (vigilancia). | |
| 6 | • Urritasunaren arabera plaza matrikularekin ematea.<br>• Dar plaza con matricula según el grado de minusvalía. | |
| 6 | • Umeentzako parke estaliak. (bat gutxienez herrian).<br>• Poner un parque cubierto, por lo menos uno en el pueblo. | |
| 6 | • Hipodromo etorbideko trafikoa erregulatzeko ikerketa bat., ibai ondoko aparkalekuetara iristeko.<br>• Un estudio para regular el tráfico de la avenida del Hipodromo, para llegar a los garajes del río. | |
| 6 | • Energia berriztagarriak erabili udal eraikinetan.<br>• Energías renovables en los edificios municipales. | |
| 5 | • Bidegorria Donostiarekin lotzea. (peatoientzat ere jartzea)<br>• Unir Lasarte-Oria con Donostia mediante el bidegorri (también para peatones) . | |
| 5 | • Elbarrituentzako aparkalekuak: zeudenak kendu egin dituzte eta daudenak espazio aldetik ez dira egokiak.<br>• Los aparcamientos que había para minusválidos los quitaron, y los que hay no son adecuados. | |
| 5 | • Berdegune bat udaletxe atzean. Gune ezberdinekin: haurrentzat, etzanda lasai egoteko, zakurrentzat…<br>• Una zona verde detrás del ayuntamiento nuevo. Distintas zonas: para niños, para estar tumbado, para perros… | |
| 4 | • Kiroldegian elbarrientzat ez dago dena egokitua, beste herrietan bazala deskontuak egitea.<br>• El polideportivo no esta adecuado para minusválidos, en otros pueblos hay descuentos… | |

## ERDIGUNEA

| | | |
|---|---|---|
| **2** | • Emakumeen osasun espezifikoa lantzeko gune bat (anbulatorioan dagoena ez da nahikoa)<br>• Un espacio para tratar la salud especifica de la mujer (lo que hay en el ambulatorio no es suficiente.) | |
| | • Largoenean barandailak jartzea. (anbulatorio aurrean)<br>• Poner una barandilla en Largoenea. (en frente del ambulatorio) | |
| | • Kale peatonal gehiegi, beste batzuentzat oso ondo dago horrela.<br>• Hay demasiadas calles peatonales, para otros está bien así. | |
| | • “Comercio justo” denda bat jarri.<br>• “Poner una tienda de “comercio justo” (dar ayudas). | |

**ERDIGUNEA**

# Udalak ez du konpetentzia osoa
## No es sólo competencia del ayuntamiento.

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| 27 | • Anbulatorio zaharra zegoen espazioa aprobetxatzea. (parking bezala adibidez)<br>• Aprovechar el espacio del ambulatorio antiguo. (como parking por ejemplo) | |
| 18 | • Autobus publikoetako malda askotan puskatuta egoten da, (gurpil aulkiarekin ibiltzea ezinezkoa).<br>• La rampa de los autobuses muchas veces no funciona (no se puede acceder con silla de ruedas.) | |
| 17 | • Herriko langabetuen poltsa bat sortu herriko lanak egiteko<br>• Crear una bolsa de parados para hacer los trabajos del pueblo. | |
| 15 | • Zaborraren kontzientziazioa eskoletatik hastea eta herri mailan ere egitea. (etxeetan birziklatzeko baliabideak ematea)<br>• Empezar con la concienciación de la basura desde las escuelas y a nivel municipal ( facilitar medios para reciclar en casa) | • Kaleko zaborrontzietan birziklatzeko aukera.<br>• Dar la opción de reciclar en las papeleras de la calle.<br>• E-mailez udal informazioa jasotzeko aukera (dena).<br>• Recibir toda la información del ayuntamiento por e-maila. |
| 15 | • Badenak oso altuak dira gurpil aulkiarekin ibiltzeko eta espaloiak egoera txarrean<br>• Los badenes son muy altos para andar con la silla de ruedas y las aceras están en mal estado.. | |
| 8 | • Auzolana hezkuntzatik, ikastetxeetatik, ere lantzea (bibliografia asko dago metodologia honi buruz hezkuntza mailan)<br>• Trabajar desde educación, desde los colegios, el “Auzolan” (hay mucha bibliografía a nivel de educación sobre esta metodología). | |
| 6 | • Plazaolako bidea Andoain eta Urnietarekin lotu | • (Ikerketa bat egin honen inguruan). |

**ERDIGUNEA**

| | | |
|---|---|---|
| | • Alargar el camino de Plazaola hasta Andoain y Urnieta. | • Hacer un estudio |
| **5** | • Udan kiroldegia 15 egun ez ixtea.<br>• No cerrar el polideportivo 15 días en verano. | |
| **3** | • Irunera joateko zerbitzu gehiago jarri, maiztasun handiagoarekin.<br>• Poner mas servicios para ir a Irun (con más frecuencia) | |
| **3** | • Pertsona helduentzako azpiegitura gutxi eta garestiak (eguneko zentro bat)<br>• Pocas infraestructuras para las personas mayores y son caras. (un centro de día). | |
| **1** | • Goiegi zubiko espaloia gaizki dago pasatzeko.<br>• Las aceras del puente del Goiegi están muy mal para pasar. | |